

## Garabidek eta Eskoriatzako Udalak lankidetzarako hitzarmena sinatu dute

2008/07/11

Uztailaren 10ean Garabide gobernuz kanpoko erakundeak eta Eskoriatzako Udalak lankidetzarako hitzarmen bat sinatu zuten Eskoriatzako Udaletxean, ondoan zituztela Lourdes Tiban eta Raul Llaquiche senar-emazteak, biak oso pertsona ezagunak Ekuadorren, lehena idazkari nagusia baita CODENPE erakundearen, Ekuadorreko nazionalitateak eta herriak garatzeko kontseiluan.



Akordioaren helburua da elkarlana sendotzea bi erakundeen artean. Horren bidez, Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du babesa eman eta jarraipena egiteko Garabidek antolatutako ekintzei. Horren haritik, lokal berri bat utziko dio Garabideri, horrek bere jarduera behar bezala egin dezan. Garabidek, ostera, konpromisoa hartzen du hainbat ekintza antolatzeko Eskoriatzan bertan.

### Garabide

Garabide da gobernuz kanpoko erakunde bat, eta lan egiten du euskal kooperazio identitario, kultural eta linguistikoa aurrera eraman nahian. Ildo berri bat zabaldu du euskal garapenerako lankidetzan. Garabidek sinesten du euskalgintzaren esperientzia baliagarria izan daitekeela herri indigenek beren nortasunari euts diezaioeten. Gaur egun batez ere Hego Ameriketara egiten du lan, eta proiektu hauek ditu esku artean:

- Telebista Kitxua, Ekuadorren.
- Aholkularitza Boliviako Gobernuari.
- Unibertsitate Indigena, Bolivian.
- Plataforma linguistikoa bat eratzea Maputxeen hizkuntza berreskurapenerako.

Huhezi Garabiderekin dabil alkarlanean Giza Zientzien departamenduaren eta Hizkuntza departamenduaren bidez, Euskal Herritik harago herri indigenetara zabaltzeko hizkuntza gutxituen garapenerako eta irakasleen formakuntzan urtetan egindako lana eta ikerketa.

### Lourdes Tiban

Lourdes Tiban andrea idazkari nagusia da Codenpe erakundearen, Ekuadorreko nazionalitateak eta herriak garatzeko kontseiluan. Egun hauetan Euskal Herrian izan da Raul Llaquiche bere senarrarekin batera, zeinak Bartolome de las Casas saria jaso berri baitu Madrilan. CODENPE 1998an sortu zuen Ekuadorreko Gobernuak, politikak definitzeko herri indigenen garapenerako. Harremanetan dabil Garabide elkartarekin, Ekuadorren Telebista Kitxua sortzeko proiektuaren harira, CODENPEk jakin nahi baitu Euskal Herriko erakunde publikoek zer laguntza eta hizkuntza politikak dituen.